

URRIAREN 27 AGNH-REN EGUNA ESPAINIAN

Aurten gure leloa **#TDAHparatodalavida** izango da... Zer adierazten digu? Gehientzat gutxi edo ezer gutxi, baina AGNH dutenentzat edo haiekin elkarbizitza egiten dutenentzat beste kontu bat da.

Alde batetik **samurtasuna, poza, miresmena...** dauzkagu. Zoragarriak dira AGNH duten pertsonak! Bihotz handikoak, eskuzabalak, irudimentsuak, indartsuak, gogotsuak... zoragarria da AGNH duten pertsonekin bizitza elkar banatzea.

Beste aldetik, eta hauxe da gaur hemen gure eskubideak aldarrikatzera ekarri gaituena, **kezka, beldurra, segurtasun-eza... Zergatik?**

Ez dugu ahaztu behar AGNH-ak gure haur eta nerabeen %5ari eragiten diola eta pertsona helduen %2-3ari. Ez dugu ahaztu behar nahasmen neurobiologiko bat dela, identifikatutako mapa genetiko zehatz batekin.

AGNH-a “gauza ez oso grabea”, “hutsala” eta “pasatzen den” zerbait bezala ikusia dagoeenez, AGNH duten pertsonak haurtzarotik euren kontra dagoen inguru arrotz bati aurre egin behar diote. Ba EZ, ez da pasatzen eta nerabearoko eta helduaroko arriskuak biderkatzeko bezain larria da: istripuak, kontsumoak, nahasmen psikiatrikoak, delituzko jarduerak, lan ziurgabetasuna...

Eta zergatik gaude haserre? Hau guztia ekidin daitekeela **badakigulako**, diagnostiko goiztiar bat eta bizitzan zehar egindako eskuhartze pertsonalizatu eta diziplina anitzeko batekin. Ez dezagun ahaztu, AGNH bizitza guztirako da **#TDAHparatodalavida**

Hain sinplea den eskubide hau **UKATU** egiten zaigu. Hauxe da egia eta hauxe da hitza.

Bere izatea **ukatzen** da, bere larritasuna **ukatzen**, osasungintzako eta irakaskuntzako profesionalei formakuntza **ukatzen** zaie, AGNH-dun pertsonak babesteko legea **ukatzen** zaigu, laguntza psikopedagogikoa behar duten hainbat familiei laguntzak **ukatzen** zaizkie, AGNH-aren konikotasuna **ukatzen** da.

Hemen **jarraituko dugu** AGNH-dun pertsona guztiek beha dituzten babes eta berme guztiak lortu arte, bai osasungintzan, irakaskuntzan, lan-arloan eta gizarte-arloan. Gizarte honek ezin ditu galdu bihotz handiko pertsona eskuzabal, irudimentsu, indartsu eta gogotsu hauek.

Bigitza osorako